

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2013ko ekainaren 6ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. CIME praktikak; 1.2. Eskolako bidea; 1.3. Eskolako Agenda 21; 1.4. Tokiko Agenda 21; 1.5. Hondatutako ibaiertzak berreskuratzea; 1.6. Bilera Sagarrak taldearekin; 1.7. Hitzarmenak, kuotak, PALak onartzeko ziurtagiriak; 1.8. Igorritako albisteak.
- **Eskualdeko Ekintza Plana onartzea:** oniritzia eman zaie helburuen proposamen berriei. Eskualdeko Plan osoa uztaileko bileran onartuko da.
- **SMren estatutuak aldatzea:** proposamena onartu egin da.
- **BFaren eta Ut21en artean hitzarmena sinatzea, etxeko hondakin txikien frakzioak berriro erabiltzeko prestaketa-zerbitzua emateko:** proposamena onartu egin da, honako puntuekin: 1) Hitzarmena; 2) Koopera zerbitzuaren deskribapena; eta 3) IKS eeM sistemaren markoan izapideak eta ekintzak era telematikoan egiteko ahalordea ematea.
- **Erosi eta kontratatzeko eskualdeko zerbitzurako pilotajea aukeratzea:** oniritzia eman zaio orientazioari: 1) Bosgarren edukiontzirako hondakin organikoak biltzeko zerbitzua; 2) Udalak energia elektriko hornitzea. Bi formatutan: Lehenengo kasuan, Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek lehiaketa prestatu, kontratua esleitu eta sinatu, eta jarraipena egingo du, olio eta arropa bilketarekin bezala. Bigarrean, Udaltalde 21ek lehiaketa prestatu eta kontratua esleituko du, eta udal bakoitzak sinatu eta jarraipena egingo du.
- **EJren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko laguntzen deialdia:** eskuragarri dagoen informazioa partekatu da, eta eskualdeko ekintzetarako eskariak (Udaltalde bezala) bideratzeko aukera planteatu da.
- **Ettxerre eta Garaiko urmaelak berreskuratzekeo plana babestea:** onartu egin da.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** osteguna, uztaileak 11. Segurtasun neurrien ikerketa aurkeztuko da ikastetxeetan. Abuztuan ez da bilerarik egongo.
- **II. blokea. 10:30 – 11:30. Jatorri industrialeko Isurpen Fokuen Inbentarioa:** Inguru ingeniería y gestión ambiental enpresaren teknikariek lanaren emaitzak aurkeztu dituzte, eta dokumentazioa paperean eta euskarri informatikoan eman diote udal bakoitzari eta eskualdeko bulegoari. Proiektuaren ondorioei eta aplikazio informatikoari buruzko solasaldia egin da.